




FREDERICK



LIBURUAREN FITXA

Leo Lionni. *Frederick*. Kalandraka 2004. Lehenengo edizioa 1964

AURKEZPENA

Frederick satitsu familia bateko ameslaria da. Uda bukaeran, familia osoa saiatzen da negua pasatzeko janari bila. Hormaren ondoko bidetxoetan biltzen dituzte gari aleak, urrak, almendrak eta lastoa. Elkar lanean aritzen dira, kate luze bat osatzen dutelarik, baina Frederick ez da lan-kate horretan sartzen; itxuraz, ezerezari begira jarrita egoten da, besteak lanean ari diren bitartean. Negua iristean, aise pasatzen da denbora gordelekuan, baina halako batean janariak bukatu dira eta Frederick txikiak bere ametsetatik ateratzen ditu udan gorde dituen argia, koloreak eta hitzak. Fredericken opariak alaitasunez jasotzen dituzte habian anaiak, hotza eta nahigabeak uxatzeko.

KONTAKETA

- Kontaketan elementu asko bildu daitezke: istorioak xarma handia du eta ilustrazioa eredu bilakatu da egungo hainbat ilustratzaileentzat: paper puskaz egindako collageak.
- Fredericken desberdintasuna nabarmendu. Ez zituen gauza materialik biltzen: pentsamenduak, ipuinak, koloreak...
- Bizitzeko ez da bakarrik jatea eta lo egitea behar: alaitasuna, elkartasuna, irudimena... janaria bezain beharrezkoak dira

PROPOSAMENA LUZATZEN

- Oroimenari emango diogu garrantzia, gauza gozoaz gogoratzea, memorian gauza onak gordetzea.
- Collageak egin.

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Bakoitzak bere Frederick propioa sortuko du paper puskaz.
- Beren une oso maitagarria gogora ekarriko du bakoitzak: oso ondo pasa duteneko une bat, asko maite duten pertsona batekin pasa zaien zerbait...
- Beren oroimena kontatu behar dute labur eta irakasleak idatziko du.
- Frederick bakoitzaren ahotik komiki globo bat aterako da oroimen bakoitzarekin.